

# Euskarazko literatura Iparraldean XXI. mende atarian

(Basque literature in Iparralde in the threshold of the 21<sup>st</sup> century)

Etxezaharreta, Lucien

Maiatz aldizkaria

Sabaterie karrika, 6

F64100 Baiona

---

*XXI. mende hasieran Lapurdi Nafarroa Behere eta Zuberoako euskarazko literatura, egoera itxuraldatu batekin dator: euskaldunen kopurua arras apaldu da, beste kultur eta hizkuntzen jabetasun maila, eskolatzak, ondorio kontrajarriak izan ditu 50 urtez iraun duen iraultza baten gatik. Euskarazko literatura sortu da, esparru libre batean, sorkuntzak zituen estekak galduz parte handiz. Hizkuntza berri du, sektore sozial ezberdinetara iritsi. Euskalkie n aberastasunak iraun du, Iparraldeko idazleentzat ahaltasun baliagarriak eskainiz, euskara batuak bide egin duelarik ere, oreka batetaraino. Kanpoko, eta sahetsean berean diren hizkuntz eta kulturakiko harremana indartu da ere, ele ainiztasunaren bidean jarri da euskal idazlea, idazle erdaldunarekin gero eta gehiago balore partekatzen dituela.*

*Giltza-Hitzak: Euskal Literatura. Iparraldeko euskara. Literaturaren soziologia. Ahozko euskal literatura.*

*A comienzos del siglo XXI, la literatura vasca de Lapurdi, Baja Navarra y Zuberoa aparece en una situación que ha sufrido cambios: el número de vascoparlantes ha descendido enormemente, el grado de apropiación de otras culturas y lenguas, la escolarización, que ha tenido consecuencias contrapuestas, debida a una revolución que ha durado 50 años. La literatura vasca ha nacido en un espacio libre, pues la creación la ha hecho perder en gran parte sus ataduras. La lengua se ha renovado, llega a diferentes sectores sociales. La riqueza de los dialectos del euskara ha pervivido, ofreciendo posibilidades utilizables por los escritores de Iparralde, y también ha avanzado el euskara unificado, llegándose a un cierto equilibrio. También se han fortalecido las relaciones con las lenguas extranjeras, y con las vecinas más inmediatas, y el escritor vasco ha iniciado el camino del multilingüismo, compartiendo cada vez más valores con el escritor no vasco.*

*Palabras Clave: Literatura Vasca. Vascuence de Iparralde. Sociología de la Literatura. Literatura vasca oral.*

*Au début du XXI<sup>ème</sup> siècle, la littérature basque du Labourd, de Basse Navarre et de Soule est dans une situation qui a connu des changements importants: le nombre de bascophones a beaucoup diminué, l'appropriation des autres langues et cultures, la scolarisation en français, ont influé de manière radicale dans cette évolution durant une cinquantaine d'années. La littérature en basque naît véritablement, car délivrée d'anciennes contraintes. La langue s'est renouvelée, atteignant de nouveaux secteurs sociaux. La richesse des formes dialectales a survécu offrant des richesses utilisables par les écrivains tandis que le basque unifié a progressé et atteint un niveau équilibré. Les liens avec la langue française se sont également renforcés, l'écrivain bascophone prenant la voie du multilinguisme en partageant de plus en plus de valeurs avec l'écrivain non bascophone.*

*Mots Clés: Littérature Basque. Basque d'Iparralde. Sociologie de la Littérature. Littérature basque orale.*

XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques = Basque science and culture, and telematic networks (15. 2001. Donostia). – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2002. - P 661-666. - ISBN: 84-8419-906-1.

## 1. XX. MENDEKO EUSKARAZKO LITERATURAREN BALDINTZEN ALDAKETA NABARIAK

“Euskal bloke” baten antza zukeen euskarazko literaturak Lapurdi Baxenabarren eta Zuberoan XX. mende hastapenean. Gogoan ukaiten ahal dugu Jean Hiriart-Urruti, *Escualduna* astekariaren buruzagia eta bere inguruko apez ekipa homogeneoa, “euskaldun fededun” lemaren inguruan. Talde hori lehen bizkaitar abertzaleetarik behetzen, beldur doi bat, luzarako baztertua. Garai premiazkoa da Lapurdi eta Nafarroa Behereko euskara idatziarentzat: orduan da finkatzen deitzen zuten “euskara garbia”. Bultzatu zen euskara idatzi landu bat, “lapurtar-benafatar” kutsu aipatu horrekin, XX. mendean zehar eredu egonen zena. Ez da ahanzi behar talde horrek zuela –hitza ez zen oraindik erabiltzen– gure herria alfabetizatu, milaka etxeetara heltzen baitzen horrela idatzia, eta literatura ere.

Horiek hola, mende berriaren errotak eman zuten itzuli! 14eko Gerla Haundiaren tragedia eta honi datzikola, herrien gizonez hustea, ideia berrien munduaren txokea, lehen kolpe nagusia izan zen. Jean Etxepare idazlea horren guziaz lekuko interregaria dugu. Argi da bigarren Gerla Mundialak, 39tik 45eraino, bere zorigaitzarekin aldakuntzen ostiko handia gaineratu zuela gure herriari eta 1950 urtearen ingurua, bigarren txoke onda hori, heltzeko astia behar baitzuen, efetu nagusiekin agertu zela. Funtsezko integratzea Frantziako ekonomia eta kultura orduan hasi zen. Soziologia analisisa sakonik egin gabe, pundu nabari asko laburbil daitezke, ondorio zuzenak kultura eta hizkuntzaren erabilerran ekarriko zituztenak.

Euskararen eta ordena sozialaren gerizatzaile nagusi zen baserri munduaren erorketa alimalea izan zen puntu nagusietarik: gure herriak hustu ziren, gazteak hirietara joan, kostaldera, Paue, Bordele, Parise aldera, Ameriketara ere oraindik. 1950.eko hamarkadan mekanizatzaileak laborantza berria bultzatu zuten, lehen kooperatibak (Donapaleuko Lur Berri) politika berri baten eremaita izan ziren, nola artoaren monokulturan.

Belaunaldi gazteena bapatean eskolatzen hasi zen: 1945 arte, 12 urteetan bukatzen ziren eskolak eta orduan datoz, kolegio, lizeo eta unibertsitateak. Zehar aldatu zen jende gaztearen kultura. Komunikabideak eta telebista indar handiz agertu ziren (telebista 60 hamarkadan denetara etorri zen): kultura, irudimen berriak, pentsamolde segitzaileak, kontsumismoa lehen aldikotz hain masiboki. Elektrizitatea (Landibarrera dator, azkenetarik zen, 1956an!) denetara heldu zen, etxeak itxuraldatu, berriak ziren, eta nolaz ez aipa emazteen bizi moldearen osoki kanbiatzea, familien bizia arunt aldatzea: haur biziki gutiago, familia desagiteak, etxaldean partekatzeak, laborari etxeak aktibitatea utziz gero. De Gaulle presidentak zion telebista zela “gobernuaren etortzea sukalde bakoitzera” bainan gehienbat izan zen kultura frantsesean integratzea! Hor ere sortu ziren adineko eta gazteen arteko konfliktu berriak. Euskaldun belaunaldi

moderno berri bat sortzen ari zen, hego Euskal Herrian baino urte batzu lehenago.

Euskarazko literaturaren sustrai eta pentsabide izan zen Elizak ere indarrak galdu zituen 60 urte horietan. Apezgai arras gutiago, elizen hustea, jendeen lehengo sineste ximplearen aldatzea. Apez batzuek kontrolatzen zuten “linea editorial” orokorra, euskal literaturan, urte gutiz, aldatu zen. Aski erretx konprenitzen ahal da gazte belaunaldi eskolatuak, 68ko pentsamolde berri olatuaren haritik, ez zuela, zahar kontsideratzen zituen sineste, ibil edo edo pentsamoldea, luzaz jarraikiko.

Euskarazko literaturak jasan zuen txoke handia etorri zen ere abertzaletasun berriaren haritik. Erabata mugimenduak intelektual gazte frango, ikasle euskaldunak, bildu zituen. Hauak zuten bideratu mugaren bi aldeetarako euskara batu berriaren hautua alde batetik, bainan ororen gainetik euskararen esparri berria: Euskal Herria bere osotasunean.

Hego Euskal Herriko idazleen prestigioa handia zen 60eko hamarkadan eta hara ziren gure aldeko batzu eredu berrien bila joan poesia berriaren inguruan. Eñaut Etzemandi, Jean Louis Davant, Daniel Landart bide horietarik hasi ziren 60-70 urteetan. Mundu berrien adierazpena, ideia politiko berriena, kanpoko hizkuntzek sortu idazle eta literaturari interesatzea, ardatz izan ziren. Lehen hausdura bat izan zen horrela, bigarren olatu bat etorriko zela, literatura bideentzat sakonagoa 80 hamarkadaren hasieran. Laburbilduz erran daitezke *Maiatz* elkarte berriaren ingurutik bultzatu zela.

XX. mende bukaerako berritasunak literaturan partez mugaz bestaldekoen eraginez gertatu zirela azpimarratu behar da. Gogora gaitzeen halere gure eskualdeak bere parte hartu zuela berritasun denbora horietan: Baionan 1964ean egin bilera famatu batean euskara batuaren lehen urratsak prestatu ziren, gero 68an Arantzazun ofizialki baieztu eta bideratu zirenak. Literaturaren berritasun olde bat hasi zelarik Gipuzkoan bereziki 70.eko hamarkadan, hemengo batzuek parte hartu zuten. *Pott* aldizkaria kasu aipagarria da: aldizkari famatu honen lehen zenbakian Henriette Aire, Mikel Hiribarren edo Ladix Arrosagaraiek testuak jarri zituzten. Dударik ez, hegoaldean sortzen ari zen literatura hiritar berriak eragin handia ukan zuela gure eskualdekoengan, Itxaro Borda lekuko argia delarik.

Maiz hausdura nabarmen baten sortzaile agertzen den Jon Mirande, 50.eko hamarkadan umezurtz geratu zen ez baitzuen Iparraldean eraginik ukan. Berak euskal literaturan eragin hausdurak ez zuten sartzetik lortu gure eskualdean, apez talde batek gaketzen zuten munduan, Lafitteren poderioz bereziki. Ulgerri da literatur “iraultza” horren denborak ez zirela etorriak, oraindik.

Beritze eta berritasunek ez digute ahanzarazi behar gauzak ez direla hala ere hain argi literaturan eta badirela “pasalariak”, belaunaldi batetik bestera ibili direnak, batuaren hizkuntza eta ereduak era-

bili eta tolestatu dituenak, berritasunak ekarriz. Hauen artean ohargarriena daiteke Piarres Lafitte. Mende osoa zeharkatu zuen eta jendarte laborari fededun baten itzain izan bazen argiki, berritasunei ateak ideki zituen noizbehinka. Goresmen guzietan artean, erran daiteke prudentzia eta kontserbatismo zerbaitekin ibili zela Herriaren buruzagi literaturazale eta kritiko ospetsua. Aldiz, engaiatuagoa agertu zen Piarres Larzabal azkaindarra. Abertzale munduan kokatu zen bai eta langile munduaren defentsan. Hazpamen bikario egon zen gazte zelarik 40eko hamarkadan, Aljeriako gerla salatu zuen, maiz lehen ETako militanteen artzain egon ere. Antzerki mundua landu zuen orenen gainetik, herrietan hainbat antzerki taldeei hazkurria emanez. Manex Erdozaintzi-Etxart Ibarlakoak, Donapaleun frantxiakano izan zenak, belaunaldi berriekin zubia egin zuen 70-80 hamarkadan, Maiatz taldean sartu zen eta han bere azken idazkiak argitaratu ere 84ean hil arte. Euskararen herriko erabileratik baturaino, euskalkien errespetua bideratuz, berritasunen beharra agertuz, eredu handia izan zen eta da, Iparraldeko euskaltzale eta literaturazale guzientzat.

Ohargarria da literaturan, idazlea zendu eta bere obrak jarraitzen duela, maiz ahantzia egoiten dela luzaz eta berpizteak dituela batzuetan. Erdal literaturetan fenomeno ezaguna da: euskarazko gauzeekin, irakaskuntza abiatzearekin ez al da gauza berdina gertatzen autore batzuekin hemen? Jean Etxepare medikuaren obrarekin hori da, Charitonek argitaratu gerotik 90eko hamarkadan. Jules Moulié "*Oxobi*" batek ez du suerte berdina. Aldiz *Zerbitzari* alias Elizalde azkaindarra XX. mende hasierakoa arrapizten ari zaigu. Erreferentziak, premiazoak direnak literatura baten oinarrietan, gaurko euskararen baloratze prozesu berriari esker –azkenean erran daiteke!– eskuratzeko ari ditu Iparraldeko ikasle, irakasle edo jende literaturazaleak.

## 2. EGUNGO EUSKARAZKO LITERATURAREN PANORAMA

Bistan da, lehen oharpena, gure eskualdeko ekoizpenen murritzasuna da: Euskal Herrian azken urte hauetan urtero argitaratu milako tituluetarik ez baitira hemen hamar ere agertzen! Euskaldunen kopuruari, eta gehiago oraino irakurleen kopuruari alderatuz, oso guti. Galde garratzena baita zenbat euskararen irakurle den gure hiru probintzietan! Herria euskarazko astekariak 3 000 harpide izanez, hainbat irakurle bederen konda daitezke. Errealitatea, liburuen irakurketari dago kienez, zorrotzagoa da: 300 bat liburu erosle daitezke, noizbehinkako liburu herriko ixtorio kondatzaile direnak ezik. Irakurle gozari hau erakaskuntza eta eskualtzaleen mundutik dator argiki. Pastoraletako liburuak kasu bereziak dira, baina segurta daiteke erdarazko itzulpenarentzat erosten direla gehienbat.

Bestalde Iparraldeko liburuen parte aski handia hego Euskal Herriko argitaletxeek plazaratzen

dute, nola Itxaro Bordaren hainbat liburu Zarautzeko Susan, aurten plazaratu Emile Larreren liburua Auspoan, Tolosan, edo Eneko Bidegainen esaerei buruzko lana Donostiako Elkarlaneanen.

Mugaz bi aldeetako harreman horren adierazgarri da ere Sarien kontua. *Xalbador Saria* Iruñan, *Irungo Sariak*, *Azkue Sariak* edo *Donostia Hiria Sariak*, sail ezberdinetan, Iparraldekoen partaidetza handia ukan dute. Nolaz ez aipa Eñaut Etxamendik Irungo Saria jaso zuela "Gilentegiko Gilen" nobelarekin, Jon Casenavek Azkue Saria "Ordu alferren segida" poema obrarekin. Gerorago aipatuko dugun ahozko literaturari doakion antzerki mundua, bereziki saritua izan da azken urte hauetan: Antton Luku, Pantzo Hirigarai eta Mattin Irigoienek jaso zituzten Donostiako Sariak "Tu quoque filii", "Lamindegiko laminak" edo "Hautsi da Kristala" obreakin.

Sariak, berritasunak dira Iparraldean, horri buruz, azken urteak arte desertu zen eremuan: Baiona, Angelu eta Biarritzek ipuin lehiaketak izen ezberdinetakoak antolatzen dituzte, euskaraz idazteko ahala eskainiz, frantsesa, gaztelera, batzuetan gaskoinarekin: Agnès Esponde lekorndarra edo Daniela Albizu urruñarra saritunik atera dira. Hendaian *Amodiozko Gutun lehiaketa* 2000.ean antolatu zen, euskaraz. Euskal Kultur Erakundeak, idazle berrien sortzeko gutziarekin eta emaitza eskasekin, antolatu zuen 2000.ean "Luma" sariketa bat.

Euskarazko argitalpen gehienak gaur *Gatuzain* eta *Maiatz* Baionako argitaletxeen esku dira. 1982ko otsailean Baionako fakultatean *Maiatz* aldizkariaren 1 zenbakia aurkeztu zen, Ipar Euskal Herriko idazle mordo baten partaidetzarekin eta horrek bere denbora markatuko zuen. Gerotik 35 zenbaki plazaratu dira eta 1984a gerotik 43 liburu. Hor aurkitzen da gure eskualdeko berritasun frangoren adierazgarria.

Orotara 40 bat idazle berri agertu dira hogeituro urteko epe horretan, batzuek aipagarriak direnak, eta bereziki emakumezkoen artean: Itxaro Borda, Aurelia Arkotxa, Mayi Pelot, Daniela Albizu bereziki. Piarres Aintziart, Manex Lanatua, Jakes Ahamendaburu, Koldo Ameztoui, Auxtin Zamora, Kepa Akixo, Txomin Hegi, Ur Apalategi, Antton Luku, Mattin Irigoien lehen urratsak hor plazaratu ziren. Eñaut Etxamendi, Manex Erdozaintzi Etxart, Iratzeder edo Txomin Peillenen lanak ere badira. Gaiak merezi luke aipagai luzeagoa, baina aski da berdin erraitea hor literatura berriaren harrobi nagusi bat dugula, euskararen laborategi bat izan zela, eta dela ere, euskalki eta batuaren orekarekin, poesi forma berri asko izan direla, baina gehienbat ideia berri eta formen inguruan izan dela berritasun. Kultura forma berriak izan eraginaren oihartzun zuzena da. Hego Euskal Herriko idazleen lanak ere argitaratu ziren, besteak beste Joseba Sarrionandia, Laura Mintegi, Koldo Izagirre edo Gerardo Markuletarenak. Maiatzek literatura animazio sailean ere bere tokia hartzen du, irrati emankizunak bideratzen, azoketan parte hartzen kostaldeko hirietan, Durango edo

Saran eta ere debateak piztuz literaturaren inguruan, bere "Solosaldu literarioekin", 2001.ean 18. aldia zelarik.

*Gatzuzain* elkartetxeak duela hiru urte hasi sailak ez bazuen ere literaturari buruzko xede argia, honek tokia hartzen ari du, adibidez aurten, Gorka Torreren lehen nobelarekin. ELB sindikatuaren historia euskaraz jami du ere eta haur eta gazte literaturaren saila okupatzen ari du euskaraz, aurten Majjan Minaberriren "Puxka" liburuxkarekin besteak beste.

Elkarte eta mugimenduetarik iduriz bazter baina zerbait klasikotasunekin, Iparraldeko XX. mende Erdiko idazkerari buruz, hor dira ere Emile Larre, Daniel Landart, Jamattitt Dirassar, Mixel Itzaina, Henri Duhau edo Xipri Arbelbide. Honek dotzena bat liburu argitaratuak ditu, sail askotan. Bere aurtengo lana dabil Pesta Berriren inguruan eta bere historia lanak, biografia eta ikerketak aipagarriak dira.

Zuberotarrez idatzi literaturak emaitza guti ditu oro har; Junes Casenaven lanak edo Pastoralen testuen inguruan ezik. Jean Louis Davantek urte ondarron honetan "Zuberorako idazle zenduak" izeneko bilduma eskaintzen du. Sü Azia Mauleko elkarteak idazlanen ezagutarazten saiatzen da. Maiatzen aurkitzen dira Junes Casenaven lan zenbaitzu. Izpegi argitaletxeak honen ipuin bilduma eskaini zuelarik 2000.ean.

*Izpegi* Baigorriko argitaletxearen lanak erdaraz dira gehienak, batzuek euskal literatura edo toponimia hunkitzen dutenak, Jean Baptiste Orpustan-en eskutik. Honek onomaztikazko lan garrantzitsuetarik aparte, Jean de Sponden olerkiak itzuli eta argitaratu ditu, Oihenarti buruz lan haundiak egin ere. Xan Irigarai Azkarateko autorea atipikoa dugu, euskara "klasiko" baten haritik doalarik deplauki: bere lan nagusia "Amazonen deia", Lope de Agirrerren historiaren inguruan doa. Saio bat Maiatzen publikatu zuen ere. Iratzeder aurten 80 urte dituen fraile poetak bere lan ixila derama hirurogei urte hauetan Belokeko komentuan idazkera mistiko aberats baten ildotik. Autore ia bakarra da lapurtarra erabiltzen duena bere idazkietan. Eragin eskasa du iduriz belaunaldi berrietan, baina bere betiko baloreek, isiltasuna eta otoitzak, oihartzun berria dute.

Ahozko literaturaren eragin zuzena duten antzerkia, kantagintza edo bertsularitza bizi dira ere, hego Euskal Herriaren molde ezberdinean eta bizitasun hitza aplikatzea egoki da.

### 3. AHOZKATASUNARI LOTUA DEN SORKUNTZA

Sorkuntza mailan, ez da dudarik ahozkotasanari lotua den produkzioak duela toki publiko handiena eta ezagutze nabariena biltzen. Sail hortan, lau idazlan mota dira: antzerki tradizionala, erran nahi baita maskarada, tobera eta, molde ohargarri batez, pastorala; bertsularitza; kantagintza; antzerkia.

Begien bistakoa da antzerki tradizionalak bere publikoa zabaldu eta berri duela azken bi hamarkadetan. Nahiz ez duten gizarte mailan funtzio bera betetzen –bide kritikoa eta militantagoa lantzen baitu toberak– ez eta ere idazkera mailan arau berak errespetatzen, erran daiteke asko berri direla ere estilistika mailan baita ere estetika mailan. Ez dugu hemen puntu horien barnetzeko tokirik bainan, ba laiteke hortan ere zer erran. Emeki emeki, ikusgarri erdi profesional bilakatu dira herriko gertakari horiek eta, gisa hortan, ikuslego zabal baten hunkitzeko ahalak sortu dituzte antolatzaileek. Dudarik gabe, herri ikusgarri horien artean pastoralak da guziz enblematikoa bilakatu zaiguna. Ondorioz, urtean zehar gehienik saltzen eta zabalitzen den liburu Pastoralen testu bilduma dugu, bost mila aletan bederen.

Bertsularitzak ere garrantzi handiko tokia badu iparraldean. Hortan ere, aldaketa nabaria izan da. Lehen plazako eta pesta giroko osagai guziz herrikoa bezala ikusia baldin bazen, badu hogoi bat urte denek dakizuen bezala sorkuntza iturri interesgarriena bat bilakatu dela bertsu saioa. Pastoralaren publiko zabala ez hunkiturik ere, erran daiteke hiritartzearekin gora joan dela bertsularitzaren estimua eta euskal entzulego zabal bati hedatu dela arte molde berezi hori. Eta nola ez aipa, Xalbadoren itxura eta obraren inguruan sortu den mugimendu arrakastatsua; denek ezagutzen duzue, urtero ospatzen den Urepeleko elgarretaratze famatu hura, erran nahi baita Xalbadoren eguna.

Kantagintzaren aldia orain. Denek badakigu zer garrantzia ukan duen kantuek 70-etako euskararen berpizkundean. Erran gabe doa, Iparraldean Hegoaldean bezala, komunikabide zuzen, erabil errexa eta indartsua izan da kantua. Baina, ikusi behar da hizkuntza eta sorkuntza literarioa mailan zer eragin handia ukan duen. Alde batetik, poesiarren altxorra ezagutarazi du, hala nola Andde Duhaldetik edo Erramun Martikorenak Otsobi eta XIX-garren mendeko olerkariekin; bestaldetik, sorkuntza poetikoa baloratu dute egungo poeten testuak musikatuz. Orroitu behar da ere azken urte hauetan egin zontzei kantu eta poema klasiko bilakatu direla kasik sortzean berean, hala nola Etxamendi ta Larralden kantuak baita ere Guk taldeak egin zituenak. Azken urte hauetan, Pier-Pol Berzaitz, Beñat Achiary edo Michel Etchecopar sortzaile batzueri esker, kantagintza beste mail batetara hupatu da, oihartzun handiko ikusgarri bilakatuz (hala nola *Elkanoen semeak* eta *Euskal spiritu*) eta poesiarri publikoaren bideak idekiz, batez ere Joxean Artzeren partaidetzarekin.

Baina, aldaketa eta berrikuntza handienak antzerkiaren aldetik jin zaizkigu. Iparraldean, euskal antzerkiak publiko biltzen du aspalditik, gela beteak dira eta idazle eta jokolari berriak agertu dira XX-garren mende guzian batera gelditzerik gabe. Dudarik gabe, mende hastapeneko euskalzaileek genero horri buruz egin indarrak baita ere funtzesko lana ditugu arrakasta hore iturburuan, Barbier eta Léon Léon-ekin haste, Lafitte eta Larzabal ditugularik belaunaldien arteko zubi egileak. Aurten agertu

den *Theâtres basques* (Gatuzain argitaletxean) deitu libururan, Hélène Etchecopar Etchart ikerlariak dio, 1967-1995 tarte hortan 39 antzerki emanak izan direla, eta horietan 30 kreaio. Geroztik, urte oroz, bizpahiru antzerki berri emanak izan dira.

Lan berri horien idazleak, bi partetan eta belau-nalditan berex ginitzazke. Lehenean, Daniel Landart eta haren inguruan eginak izan diren lan kolektibok sar daitezke, bigarrenean aldiz, gazteagoak, Irigoyen anaiak Guillaume eta Mattin, Antton Luku eta Pantzo Hirigaray ezar daitezke.

Lehen belaunaldikoek, Daniel Landart zutela aintzindari, aurreko belaunaldiekin hausdura baten egitera behartuak izan dira hein batean, bereziki gaien aldetik. Euskal gizarteak ezagutu dituen krisien oihartzun eta aipamen biziak taula-ratu dituzte jende horiek. Batzutan doinu tragiko bat eman diote antzertiari, beste batzutan hase-rearen oihua hedatu dute edo eztabaida politiko biziaren hatsa, bainan, beti doinu minbera bera ezagun da lan horietan; doi doia orroitarazteko izenda ditzagun hemen *Ama* edo *Egarriak* bezalako ikusgarriak.

Geroztik, iparraldeko antzertiaren doinua garratzagoa bilakatu da partikulazki Antton Luku eta Mattin Irigoyenen antzerkietan, hala nola *Hautsi da kristala* edo *Hôtel du fronton* deitu lanetan. Kritika bizia baita ere irria nasaiki bada lan horietan, bainan ironia ez da sekulan urrun, baita ere Pantzo Hirigaray edo Guillaume Irigoyen-en idazlanetan. Halarik ere, segida bat ikus daiteke izen guzi horien artean, talde lana gelditu baita nagusi, ikuspegi herrokoa ere, ez baitira talde horiek profesionalizatu.

Beste ezaugarrietan aipatu behar da ere euskalkiaren erabilpena, molde hortan emanak baitira gehienetan idazle horien lanak. Menturaz, hortarik heldu da biltzen duten arrakasta publikoaren arrazoinetarik bat. Komunikazio bizi eta zuzena kausitzen baitute egun guzietako hizkuntza erabiliz bainan horrek ez du batere erran nahi ez dela aintzinamendurik egin idazkeraren aldetik eta estetika mailan. Aldaketa nabariak izan dira sail horietan eta horrek frogatzen du mintzaira popularrak kreaio mailan ahal handiak badituela. Maleruski, arazoak sortu dira hautu hortarik eta batez ere taulen gainean beste probintzietan agertzeko eskaeraren aldetik. Halarik ere, idazlan horien kalitate literarioa beti onartua eta ezagutua izan da hegoaldean iparraldean bezainbat, lehiaketa frangotan sarituak eta aipatuak izan baitira. Hori hegoaldeko adituek iparraldeko antzertiaren ulertzeko eta sustatzeko egin duten indarrari esker

Gai honekin bururatzeko, erran dezagun bakarrik, ahozkotasanari lotua den sorkuntza dela iparraldean osasun onean den genero bakarra. Poesiak eta narrazioak ukan dituzte sortzaile baliosak eta garrantzi handiko idazlanak, bainan, ez dute orainokoa segurik merezi duten arrakasta bildu irakurlekoaren aldetik, nahiz, frangotan, hegoaldean hartze edo harrera guziz ona ukan duten.

Bururapen gisa, orroitaraziko dugu hastapenean aintzinatzen ginuen problematika. Ba ote dugu aldaketa zerbaiten mentura ikusten gaurko egoeran? Erakutsi dugu bazterrak aldatzen ari direla uste baino lasterrago sorkuntza mailan baita ere gizartearen aldetik. Ondorioz, gure literaturaren ikertzeko erabiltzen ditugun kategoriak aldatzekoak dira dudarik gabe. Badirudi bi hizkuntzetako sortzaileek indar gehiago egiten dutela bat bestearen lanaz ohartzeko, bakoitzari merezi duen tokia uzteko, bainan, ilusiorik gabe ikusi behar da halarik ere arteka oraindik handixkoa dela bi sorkuntzen artean, bereziki publikoaren aldetik baita ere ahalen eta laguntzen eskuratzeko orenean. Bilduma xuribeltza izanikan ere, ikuspegi itzaropen-tsua dugu.

#### 4. BIDE BERRIEN HASIERA

Europako Hizkuntzen Urtea dela ta, gure solasaldiak agerian eman du, uste dugu, hizkuntzak bat bestearen ondoan bizi direla, ainiztasun batekin. Historiak bata bestearen aurka jari ditu iduriz, bote-re batzuek nagusitasun bat emanez bati, besteari menpekotasuna utziz. Denbora horiek min eta zauri asko utzi dituzte. Gure herrian edo urrutian ikusten da gauregungo konfliktu asko azken batean kultura ezberdinen enfrontamentuak direla eta hizkuntzen arteko borrokak laburbiltzen dituela batzuetan.

Agertu nahi izan dugu, frantsesa eta euskara, noizbait egoera kolonial batean izan badira –aski da oroitzea 19. mendeko Hezkunde Nazionaleko inspektoreen helburu argietaz gure eskualdean– hala ere elgar aberastu dutela. Eta horrek egiten duela ere Ipar Euskal Herriko euskarazko literaturaren nor-tasuna. Elebitasuna frantsesa-euskara luzarako jarria da, gaztelera eta inglesaren jakintzak hor balin badira ere, bi lehenek premia berezia dute. Ohartu behar gara ere frantsesezko idazleak errespetu berri batez jantziak direla gure kulturari begira. Euskaraz ari garenok gure kulturaren sustraietan badugu ere frantses kulturaren errealtatea. Handik hartu ditugu ere jakitate, literaturazaletasun edo beste. Euskarazko literatura berria gero eta gehiago zubi eta arartekolari lanari lotua da.

Mugarik jasaiten ahal ez duen kulturak, are gutiago literaturak, bakean eta bizi nahian oraindik duen zeregin haundian sinesten dugu.

#### BIBLIOGRAFIA

- APALATEGI, Ur, *Erdi guneeak*, 1995, Maiatz; *Gauak eta hiriak*, 1996, Elkar.
- AHAMENDABURU, Jakes, *Isilka misilka*, 1988, Maiatz.
- AINZTIART, Piarres, *Euskal Herrian bizikletari*, 1989, Maiatz; *Biziaren bazterrean*, 1992, Maiatz; *Santiagon oinez*, 2000, Elkarlanean.
- AIRE, Henriette, *Egiaren egarritz*, 1989, Maiatz.
- AKIXO, Kepa, *Zoro garaia*, 1992, Maiatz.

- AMESTOY Koldo, *Dena dela Lapurdiko*, 1988, Maiatz.
- ARBELBIDE, Xipri, *Pesta Berri*, 2001; *Iraultza Heletan*, 1984, Etor
- ARKOTXA, Aurelia, *Atari ahantziak*, 1993, Pamiela; *Septentrio*, 2001, Alberdania.
- BIDEGAIN, Eneko, *Euskal esakerak*, 2001, Elkarlanean.
- BORDA, Itxaro, *Bizitza nola badoan*, 1984, Maiatz; *Basilika*, 1985, Susa; *Just love*, 1988, Maiatz; *Urte lehorren kronika*, 1989, Maiatz; *Be staldean*, 1998, Susa; *Orain*, 1998, Susa; *Bakean itzi arte, Amorezko penak baino*, Susa; *Entre les loups cruels*, 2001, Maiatz.
- CASENAVE, Jon, *Azkenean dilindan*, 1978, Ustela; *Ordu alferren segida*, 1985, Elkar
- CAZENAVE, Junes, *Harigile, Ipuinak*, 2000, Izpegi.
- DAVANT, Jean Louis, *Itsasoak iraultzan*, 1986, Maiatz; *Ihesi*, 1990, Maiatz; *Zuberoako autore zenduak*, 2001, Elkarlanean.
- DIHARCE, Xavier, *Iratzeder, Biziazen Olerkia*, 1983, Mensajero.
- DIRASSAR, Jean Baptiste, *Hegiko bordatik*, 1990, Elkarlanean.
- DUPAC, Mikel, *Añarrosa*, 1986, Maiatz.
- ELISSALDE, Jean, *DVIIa Gerlan*, 1995, Alberdania.
- ERDOZAINIZI ETXART, Manex, *Hinki hanka*, Elkar, 1994 (2. Ed.); *Gauaren atzekaldean*, 1983, Elkar; *Bizitza Pilpirak*, 1994, Maiatz.
- ETXAMENDI, Eñaut, *Azken elurra*, 1972, Gure Herria; *Aurora*, 1985, Maiatz; *Gilentegiko Gilen* 1987, Kutxa.
- ETCHECOPAR ETCHART, Hélène, *Théâtre s basques*, 2001, Gatuzain.
- ETXEPARE, Jean, *Idazlanak* (6 tomo), (Charritonek bilduak), 1990, Euskaltzaleen Biltzarra.
- HEGI, Txomin, *Arteka marteke*, 1989, Maiatz.
- HIRIGARAI, Pantzo, *Laminde iko laminak*, 2000, Kutxa.
- IRIGARAI, Xan, *Amazonen deia*, 1992, Izpegi; *Itzala barnean*, 1992, Maiatz.
- IRIGOIEN, Mattin, *Hautsi da kristala*, 1996, Kutxa; *Amikuzeko Tberak*, 1991, Maiatz.
- IZAINA, Mixel, *Labéguerie*, 1999, Elkarlanean.
- LANAUA, Manex, *Kilim*, 1987, Maiatz.
- LANDART, Daniel, *Aihen ahula*, 1977, 1989, Elkar; *Batita Haundia*, 1995, Elkarlanean.
- LARRE, Emile, *Ene artzain etxolak*, 2001, Auspoa.
- LARZABAL, Piarres, *Antzerki obra osoa* (7 tomo), (Charritonek bilduak), 1998, Elkar
- LUKU, Antton, *Botoiletan*, 1998, Maiatz; *Tu quoque filii*, 2000, Kutxa.
- MINABERRI, Majan, *Puxka*, 2001, Gatuzain.
- MIRANDE AIPHASORHO, Jon, obra osoa, 2 tomo, 1999.
- ORONOS, Mixel, *La noce basque: 1 Roman/ces, 2 Atxut*, 1996, Zortziko; *Oilandoiko ermita*, 2001, Elkarlanean.
- ORPUSTAN, Jean Baptiste, *Précis d'Histoire littéraire basque*, 1996, Izpegi.
- PEILLEN, Txomin, *Karrikaburu, Euskaldunen ingurugiroan (espazioa eta denbora)*, 2001, Dakit; *Agur Zuberoa*, 2001, Biba Xiberua elk. Urretxu.
- PELOT, Mayi, *Biharko oroitzapenak*, 1985; *Tele amaurau-na*, 1987; *Hinduismoa*, 1992, Maiatz.
- TORRE, Gorka, *Gazte idealistak*, 2001, Gatuzain.
- Xalbador, *Odolaren Mintzoa*, 1989 (2; ed.), Auspoa.
- ZAMORA, Auxtin, *Ezin errana*, 1986, Maiatz; *Hatsaren bustia*, 1988, Maiatz.